

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

R 13/2015 Ebazpena

16/2014 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko uztailaren 16an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren helburua 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala zuzentzea da (IFZ: ----). Zerga-kontsulta hori 16/2014 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzorde honen aurrean, eta Gabriel Casado Ollero jaunak jarduten du txostengile gisa.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau 2014ko martxoaren 21ean aurkeztu zen, eta martxoaren 25ean sartu zen Arbitraje Batzordean, Bizkaiko Foru Aldundiko (aurrerantzean, BFA) Ogasun Saileko Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordearen idazkiaren bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean, 1. ERAKUNDEA erakundearen (IFZ ----) (aurrerantzean, «erakundea») helbidea zuzentzea premiatuz. Izan ere, bere ustez, hori Kantabrian dago 2010eko irailaren 2tik aurrera, eta data horretara atzera eraman beharko lirateke zuzenketaren eraginak.

2.- Jartze-idazkitik eta horri erantsitako dokumentaziotik, honako datu esanguratsu hauek ateratzen dira:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

1) 1. ERAKUNDEA erakundearen egoitza soziala Bizkaiko 1. UDALERRIA udalerrian kokatuta dago, 2010eko irailaren 2ko eskritura publikoan agertu bezala; hori aurrerago aipatuko dugu berriro. 1. ERAKUNDEAK Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu zituen 2012ko balio erantsiaren gaineko zergaren bere aitorten-likidazioak, itzulera eskatuz.

2) Erakundea 2006ko azaroaren 29an emandako eskritura publikoaren bidez eratu zen, Kantabriako notarioak baimenduta, «2. ERAKUNDEA» izenarekin

3) 2010eko irailaren 2an, Batzar Orokorrak 2010eko abuztuaren 18ko hartutako hitzarmen sozialak publiko egin ziren. Horietan, administratzaile bakarra, izen soziala eta estatutuak aldatzen ziren:

- 2. UDALERRIAN, Kantabrian, helbidea zuen 1. ADMINISTRATZAILE jauna izendatu zuten erakundearen administratzaile bakarra, 2. UDALERRIAN, Kantabrian, ere helbidea zuen 2. ADMINISTRATZAILE jaunaren dimisioa onartu ondoren.
- Izen soziala «1. ERAKUNDEA» izenarengatik ordezkutzen da.
- Erakundearen egoitza soziala 2. UDALERRITIK (Kantabria) 1. UDALERRIRA (Bizkaia) aldatzen da.

4) Erakundearen xede soziala «Eraikuntza osoa, higiezinaren konponketa, 1 50110 epigrafea, eta aseguruaren agentzia zein artekaritza, 1 83210 epigrafea» da, 2011ko sozietateen gaineko zergaren 200 eredian azaldu bezala, eta 2012ko apirilaren 1etik du alta emanda, lokalen alokairuko ekonomia-jardueren 1 86120 epigrafean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

5) Kideak aipatutako 1. ADMINISTRATZAILE jauna eta 1. KIDEA andrea dira; biek 2. UDALERRIAN (Kantabria) dute helbidea.

6) 2012ko apirilaren 19ko zentsu-aitorpeneko 036 ereduaren arabera, erakundearen jardura nagusia errentamenduak dira, eta 1. UDALERRIAN kokatutako lokalean gauzatzen da.

7) Aipatutako lokala ez da sozietatearena, ezta horren kideena ere.

8) Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskapena 2013ko martxoaren 5ean agertu zen aipatutako lokalean, eta egiaztatu zuen 1. ENPRESA taldearen enpresen bulegoak zirela, 1. ERAKUNDEAREKIN zerikusirik gabe; izan ere, horrek ez zuen inoiz lokala erabili.

3.- BFAko Ogasuneko zuzendari nagusiak 2013ko apirilaren 12an jakinarazi zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari 2013ko martxoaren 25ean igorritako erakundearen helbide fiskalaren eginbidezko aldaketa-proposamena, eta Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan ezarritako bi hilabeteko epea igarota, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aipatutako proposamenaren inguruan inolako adierazpenik egin gabe, 2014ko martxoaren 20ean, BFAko Ogasuneko zuzendari nagusiak gatazka hau jartzea erabaki zuen. Jartzeko idazkian, honako hau argudiatzen zuen, 9/2011 errekurtsioa duen 2012ko ekainaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia aipatuz: «isiltasun negatibozko gatazka honen moduko kasuan, ezin da desegokitasuna aplikatu; izan ere, Arbitraje Batzordearen Araudiaren (...) 13. artikuluan ezarritako hilabeteko epea igaro da». Gainera, eransten du «Arbitraje Batzordeak jadanik aplikatu duela logika bera aurreko ebazpenetan, hala nola abenduaren 27ko R 19/2012, 18/2010 espedientean» (Hirugarren Oinarria).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

4.- Kasuari dagokion araudia errepikatu ondoren (Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2/2005 Tributuen Foru Arau Orokorraren 43, Lau eta 47. artikulua eta 58/2003 Tributuen Lege Orokorraren 48. artikulua) eta «kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza» nozioari buruzko zenbait ebazpeni hel eginda (maiatzaren 2ko R 11/2011; abenduaren 22ko R 29/2011 eta R 3/2012, 31/2008 espedientean), Bizkaiko Foru Aldundiak adierazten du jartze-idazkian, erakundearen egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan bazegoen ere, «espedientean dauden datuen baterako balorazioaren arabera (...) adierazten duela erakundearen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza eraginkorra lurralde erkidean gauzatzen zirela, eta 2010eko irailaren 2ko egoitza sozialaren aldaketa ez zela halakoa izan; izan ere, ez zen inoiz gauzatu» (Seigarren Oinarria).

Jartze-idazkiaren amaieran, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio gatazkaren onarpena erabakitzeko Zerga Administrazioko Estatu Agentziarekin eta, bere garaian, balioztatzeko, 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide fiskalaren zuzenketa aitortuz. Izan ere, hori Kantabrian dago kokatuta 2010eko irailaren 2tik, eta ordura arte atzera eragin beharko lirateke zuzenketaren eraginak, Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera.

5.- 2015eko martxoaren 3an, 2015eko otsailaren 25ean prestatutako eta Posta Zerbitzuaren otsailaren 26ko zigilua zuen idazkiaren sarrera erregistratu zen Arbitraje Batzordean. Horren bidez, 1. ERAKUNDEAREN administratzaileak honako hau adierazten du, besteak beste:

- 2013ko urtarrilaren 31n, erakundeak Bizkaiko Foru Ogasunaren aurrean aurkeztu zuen 2012ko BEZari dagokion 390 eredu; horren emaitza ZENBATEKOA-1 euroko itzulera zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

- Saldo hori hirugarrengoi ordaintzeko, ZENBATEKO-2 euroko kreditu-poliza izapidetu izan behar zuela 1. BANKUAREKIN, BEZaren aipaturako saldoaren itzulera-eskubidea banku-erakundearen alde pignoraturaz.
- Eskatutako itzulera izapidetu aurretik, Bizkaiko Foru Ogasunak Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka jartzea erabaki zuela 2014ko martxoaren 20ean.
- Horrek itzulera interesdunaren izapidetzea atzeratu duela eta, ondorioz, ezin izan direla hasieran 1. BANKUAREKIN formalizatutako kreditu-polizan hitzartutako epeak bete. Ondorioz, ZZ/URTEA prozedura exekutiboa izapidetzen ari dira 2. UDALERRIKO Lehen Auzialdiko Epaitegiaren aurrean, 1. BANKUAK eskatuta; izan ere, erakundearen ondasunen betearazpen orokorra eskatzen du, aipaturako kreditu-poliza ordaintzeko.

Idazkia amaitzeko, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio «Bizkaiko Foru Ogasunak aurkeztutako gatazkaren ebazpenari lehentasuna emateko (...), eskatutako itzulera zer Administrazioari dagokion erabakitzeko».

6.- 2015eko maiatzaren 4an egindako saioan, Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidetzea onartzea erabaki zuen, Administrazio interesdunei eta erakundeari espedientearen aldarrikapena eta alegazioak egiteko, dokumentazioa emateko eta egokiak deritzoten frogak proposatzeko hilabeteko epearen hasiera jakinarazita.

7.- 2015eko ekainaren 9an prestatutako eta ekainaren 10ean erregistratutako idazkiaren bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren zuzendariak alegazioak egiten ditu. Horietan, honako hau adierazten du: «2013/04/12an,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari proposatu zion 1. ERAKUNDEAREN helbidea ofizioz aldatzea, 1. UDALERRITIK (Bizkaia) 2. UDALERRIRA (Kantabria), 2010/09/02tik aurrera eragina zuela, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zehazki erantzun gabe. 2014/03/25Ean, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean sustatzea erabaki zuela, «1. ERAKUNDEA zergapekoaren helbide fiskalaren zuzenketa eskatuta; izan ere, hori Kantabrian kokatu behar zela uste zuen, 2010/09/02tik aurrera».

Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusiak eranstean du, «BFAk emandako frogak eta ZAEAk egindako egiaztapen-jarduerak ikusita, azken horren ustez, zergapekoaren kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza Kantabrian kokatuta zegoela, zehazki, 2. UDALERRIAN kokatutako helbidean (Kantabria), 2006-11-29an zergapekoak eragiketak hasi zituenetik». Horren ondorioz, ZAEAk zuzendariak BFAk jarritako 16/2014 gatazkaren amore-ematea erabaki zuen, eta hori onartzea eskatu zion Arbitraje Batzordeari.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje-prozedura honetan, honako data hauek izan behar dira kontuan:

- 2010eko irailak 2: eskritura publikoan protokolizatzen da erakundearen egoitza soziala 2. UDALERRITIK (Kantabria) 1. UDALERRIRA (Bizkaia) aldatzen duen Batzar Orokorraren erabakia, besteak beste.
- 2013ko urtarrilak 31: erakundeak Bizkaiko Foru Ogasunaren aurrean aurkeztu zuen 2012ko BEZari dagokion 390 eredu; horren emaitza ZENBATEKOA-1 euroko itzulera zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

- 2013ko apirilak 12: BFAko Ogasuneko zuzendari nagusiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazten dio 2013ko martxoaren 25ean igorritako erakundearen helbide fiskalaren ofiziozko aldaketa-proposamena.
- 2014ko martxoak 25: martxoaren 21eko idazkiaren sarrera erregistratzen da Arbitraje Batzordean. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka jartzen du Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean, erakundearen helbide fiskalaren zuzenketa eskatuz.
- 2015eko martxoak 3: otsailaren 25eko idazkiaren sarrera erregistratzen da. Horren bidez, erakundeak Arbitraje Batzordeari eskatzen dio Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean jarritako gatazkaren ebazpenari erabateko lehentasuna emateko, «eskatutako itzulera zer Administrazioari dagokion erabakitzeko».
- 2015eko maiatzak 4: Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidetzea onartzea erabakitzen du, espedientea aurrez aurre dauden Administrazioei eta erakunde interesdunari aurkeztuta.
- 2015eko ekainak 10: ekainaren 9ko alegazio-idazkiaren sarrera erregistratzen da. Horren bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren zuzendari nagusiak Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako 16/2014 gatazkaren amore-ematea erabakitzen du, erakundearen helbide fiskala 2. UDALERRIAN (Kantabria) kokatuta zegoela onartuta.

2.- Amore ematearen irudia 30/1992 Legean aurreikusita ez badago ere (horri lotzen zaio EIABAren 8. artikulua, jarduteko araubidearekin zerikusia duen ororako), atzera egitea aurreikusten da, prozedura amaitzeko modu bezala

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

(30/1992 Legearen 90 eta 91 artikulua). Batzordeak aplikatu du dagoeneko modu hori, gatazka jasandako Administrazioak Administrazio sustatzailearen uzia zehazki konpondu zuen prozeduretan (hala nola, abenduaren 20ko R 3/2010 Ebazpena, 34/2008 espedientea; maiatzaren 26ko R 16/2011 Ebazpena, 25/2010 espedientea; urriaren 29ko R 14/2012 Ebazpena, 24/2012 espedientea eta abenduaren 19ko R 8/2014 Ebazpena, 90/2011 eta 96/2011 pilotutako espedienteak; eta martxoaren 2ko R 4/2015 Ebazpena, 20/2012 espedientea). Antzeko arrazoiak direla eta, honetan ere hori aplikatu behar dugu, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusiak 2015eko ekainaren 9an erabakitako Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako gatazkari egindako amore-ematea ikusita.

3.- Baina Arbitraje Batzordeak espedienteak eskaintako gai guztiak konpondu behar dituzenez, alderdiek proposatu edo ez (Ekonomia Itunaren 67. artikulua), amore-ematearen ondorioz gatazka honen amaieraren inguruan aurretik doan hitzarmenarekin batera, komenigarria da zenbait kontsiderazio gehigarri egitea, orain amaitzen den prozeduraren inguruan.

Horietako lehenak nabarmentzen du espedientean ez dagoela 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide-aldaketan inplikaturako bi Administrazioek (Bizkaiko Foru Aldundia, proposatzailea eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia, proposamenaren hartzailea) gauzatutako ekimeneen zein jardueren erreferentziarik, izanez gero, Itunaren 43.Bederatzi artikuluan helburu horrekin aurreikusitako prozeduran euren desadostasunak adiskidetsu konpontzen saiatzeko.

Aldiz, aurreko gertaerei dagokienez, egiaztatzen da nabarmen gainditu zela aipaturako manuan ezarritako bi hilabeteko epea, errekeritutako Zerga Administrazioko Estatu Agentziak inolako erabakirik hartu gabe, Bizkaiko Foru Aldundiak proposaturako helbide-aldaketaren inguruan. Nolanahi ere, Arbitraje

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Batzordeak jadanik adierazi du «zergadunen helbideratzearen ondorioz sortutako desadostasunetan» (EIABaren 13.1 artikulua), «garrantzitsuena ez dela isiltasuna edo erantzun-falta, baizik eta desadostasuna, eta ezerk ez du behartzen erantzun-falta hori desadostasun bezala identifikatzera nahitaez. Hori da esanguratsu bakarra gatazkaren aurkezpen-bidea irekia uzteko, desadostasuna berretsita, aginpiderik ezaren errekerimendua edo aitortpena gauzatzea beharrezkoa izan gabe; izan ere, kasu horietan, «helbidea aldatzeko eskaera soilak irekitzen du bidea, ukatuz gero, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkezteko» (2012ko ekainaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 9/2011, OJ 6), (martxoaren 2ko R 4/2015, 20/2012 espedientea, Bigarren Oinarria eta ekainaren 19ko R 11/2015, 7/2015 espedientea, Bigarren Oinarria).

Bere jartze-idazkian, Bizkaiko Foru Aldundiak aurka egin zion gatazkaren desegokitasunaren inguruko balizko eragozpenari, aipatu berri den Auzitegi Gorenaren Epaia hel eginda; izan ere, bere ustez, «gatazka honen moduko kasuan; hau da, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren erantzun-faltak eragindako isiltasun negatiboaren kasuan, desegokitasuna ez da aplikagarria, Arbitraje Batzordearen Araudiko 13. artikuluan ezarritako hilabeteko epea igaro delako». Eta hain zuzen ere, Auzitegi Gorenak adierazi du, «ezarritako epean erantzun-falta izanez gero, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, ezerk ez duela saihesten horrek aldaketa-proposamena tazituki gaitzetsita ulertu ahal izatea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuz (...)» (2012ko ekainaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 9/2011, OJ 6).

Nolanahi ere, arrazoizkoa dirudi pentsatzea, helbide fiskalaren aldaketa sustatu duen Administrazioari proposamena tazituki gaitzetsita ulertzeko eta, horrela, Administrazio hartzailearekiko adostasun-faltaren ondorioz, gatazka ezartzeko aitortutako eskumena mugatua dela (eskumen bezala), borondate onaren eskakizunen (Zfr; urriaren 29ko R 14/2012 Ebazpena, 24/2012 espedientea, eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

martxoaren 2ko R 4/2015 ebazpena, 20/2012 espedientea, Bigarren Oinarria) zein segurtasun juridikoaren berezko eskakizunen ondorioz. Eta hori, Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka aurkezteko epea ezin delako Administrazio interesdunaren borondatearen zein erabakimenaren menpe egon, eta ezin da modu mugagabea irekita gelditu; izan ere, zentzugabea izateaz gain, logikarik ez izateagatik, hori segurtasun juridikoaren eskakizunetatik urrun geldituko litzateke, argi eta garbi (Ekainaren 19ko R 11/2015 Ebazpena, 7/2015 espedientea, Hirugarren Oinarria). Bereziki, kontuan izanda, zergadunen helbideratzeari buruzko desadostasun administratiboetan, ez dela nahastutako Administrazioen eskumen-egoera soilik eragiten, baizik eta, bereziki, zergadunek Administrazio fiskalarekiko harremanetan duten ziurtasun-eskubidea (Zfr; 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 256/2012, OJ 4). Izan ere, «gatazka zerga-erregimen ezberdineko organoen artean ematen bada ere, beti aurkitu daitezke euren zerga-egoera gatazkaren ebazpenaren menpe edo baldintzapean duten interesdun partikularrak eta, zergadun bezala, horiek dagozkien eskubideen eta bermeen errespetu-eskubidea dute» (2013ko apirilaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. zk.. 17/2012, OJ 3).

Azken kontsiderazio hori bereziki egokia da gatazka honetan, kontuan izanda, erakundeak Bizkaiko Foru Ogasunari eskatutako BEZaren itzulera-eskubidearen eraginkortasuna horren ebazpenaren menpe dagoela eta, berez, baldintza horrek helbide-aldaketa proposatutako Foru Aldundia ahalik eta modu eraginkorrean jokatzerara behartzen zuen, erakundearen helbideratzearen inguruan sortutako zalantzak ahalik eta azkarren argitzeko eta, ondorioz, erakundeak bideratutako itzulera-eskaerari aurre egiteko eta, aldeaz aurretik egiaztatuta, gauzatzeko Administrazio eskudunaren erabaki sendoarekin.

Nolanahi ere, kasu honetan, gatazka jartzeko idazkian, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du azaltzen, 2013ko ekainaren 12an helbidea aldatzeko proposamena

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

ZAEAk tazituki ukatuta ulertzeko eta gatazka sustatzeko (isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuz) bi hilabeteko epea amaituta, zergatik ez duen ulertzen bere proposamenaren gaitzespen tazitua eta, horrekin, gatazkaren aurkezpena eragin zuen erakundearen helbideratzeari buruzko desadostasuna bederatzi hilabete igaro arte, hau da, 2014ko martxoaren 21era arte (Ekonomia Itunaren 43.Sei artikulua eta EIABaren 13. artikulua).

4.- Nolanahi ere, ez da arriskutsua esatea, eta hau iragarritako bigarren kontsiderazioa da, eskumen-gatazka hau ez zela gertatuko, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak bi hilabeteko epean erantzun izan balu, 2013ko martxoaren 25ean prestatutako eta 2013ko apirilaren 12an jakinarazitako helbide fiskalaren aldaketa-proposamenarekiko adostasuna azalduta, Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, ez zen gertatuko, gatazka formalizatzeko Arbitraje Batzordera jo aurretik, Bizkaiko Foru Aldundiak [horrek bederatzi hilabetez itxaron zuen helbide-aldaketa proposamena ukatutzat ulertzeko, isiltasun negatiboaren ondorioz] helbide fiskalaren aldaketa-proposamenaren aurrean interpelatutako Administrazioak zuen jarrera koordinazioko eta lankidetzako printzipio orokorrek eskatzen dituzten Administrazio arteko barne komunikazio-bideetan ikertuz gero, edota helbide-aldaketako prozeduretan erlazionatzeko zehazki ezarritako bideetan ikertuz gero.

Bereziki, ez soilik orduan Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako prozedura «adiskidetsuaren» praktikalako gaitutako bi hilabeteko epearen laburtasunarengatik, baizik eta, batez ere kasu zehatz honetan, 2013ko urtarrilaren 31n erakundeak aurkeztutako ZENBATEKOA-1 euroko BEZ saldoa itzultzeko eskaeraren existentziarengatik. Bizkaiko Foru Aldundiak erakundearen helbideratzearen inguruan sortutako desadostasunen alde zuzeneko konponketaren menpe utzi zuen eskaera horren izapidetzea, arrazoiarekin edo gabe.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2014	R13/2015	2015-07-16	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

5.- Gatazka hau ahalik eta azkarren ebaztearen haraindian, Arbitraje Batzordeak ez du zer erantsirik 2015eko martxoaren 3an erregistratutako idazkian erakundearen administratzaileak aldarrikatutakoaren inguruan; izan ere, «ebazpenaren atzerapenaren ondorioei hel egin behar zaie, izanez gero, eskuduna den Administrazioak gauzatzen duen likidazioaren inguruan» (2012ko ekainaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 9/2011, OJ 6). Ondorioz, idatzi behar da, Auzitegi Gorenak aitortutakoaren arabera, balio erantsiaren gaineko zergaren neutraltasun-printzipiotik abiatuta [eta «etxeko sistema juridikoan, zerga-eskumenen banaketa konstituzionaletik itzultzea eta gauzatzea eskatzen zuen balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa jasotzeko Administrazio eskuduna argitzeko ondorioztatutako zalantzenatik galdutako denboraren inguruan (...)], «ezin zaizkiola balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboari egotzi, sortutakoaren gainean behar baino gehiago jasanarazitako zerga itzultzeko betebeharra duen Administrazioari buruzko eztabaida juridikoaren aurkako finantza-ondorioekin (...)» (2014ko martxoaren 31ko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 1547/13, OJ 3).

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

1.- 16/2014 gatazka amaitzea, 2015eko ekainaren 10ean jakinarazitako Zerga Administrazioko Estatu Agentziak jakinarazitako amore ematearen ondorioz.

2.- Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta 1. ERAKUNDEA erakundeari jakinaraztea.